

Egun on.

Herriek, beren buruaren jabe egiten direnean, garrantzi berezia ematen diote kulturari. Aurrena egiten duten gauzetako bat Orkestra nazionala sortzea izaten da. Hala zioen Euskadiko Orkestraren sustatzaile handia izan zen Ramon Labayenek. Eta hala egin zuten Legebiltzar eta Jaurilaritza jaio berriek, 1982an: Euskadiko Orkestra sortu.

Musika Gelako kontzertuez gozatuko duten neska-mutilak, 2 urtetik 18 urte artekoak, Euskadiko Orkestrarekin haziko dira, gurasoek ere beti ezagutu dute. Gure bizitzako parte da Euskadiko Orkestra. Erdiz erdi asmatu zuten Jaurilaritzak eta Legebiltzarrak, eta Batzar Nagusiek gustura babesten ditugu Musika Gela eta Euskadiko Orkestra, kultura sustatzeko gure haur eta gaztetxoek artean.

Aurreko batean euskal kantari ospetsu bat ari zen Euskadi Irratian: Vanesa Goikoetxea sopranoa, Floridan jaio eta umetan Durangora etorria. Ezaguna duzue Euskadiko Orkestran nazioartean ospea duen abeslaria. Irratiko elkarrizketa horretan esan zuen ze garrantzitsua den gurasoek seme-alabak kontzertuetara eta operara eramatea, Alemanian ohikoa dela hori, umetatik. Gauza bera dio Inma Shara orkestra zuzendari amurriotarrak. Arrazoi dutelakoan nago: umetan etxekoekin bizitakoa geratu egiten da, musikarekin ere bai. Euskadiko Orkestraren Musika Gela zubi ona da horretarako.

Musikak badu alderdi bikoitz bat: musika norberak bizi du bere baitan, eta aldi berean, denok batean gozatzen dugu kontzertu bat edo opera bat. Musika ez da baztertzailea, **barneratzailea** baizik. Bokazio horrekin, elkartean barneratu eta errotzen gaitu musikak. 35.000 neska-mutil dabilta Euskadiko Erkidegoko musika-eskola eta kontserbatorioetan; horietatik 20.000 Gipuzkoan. Txalogarria da aurtengo helburua: Musika Gelak desgaitasunen bat duten pertsonen zabaltea. Gai dira musikaz gozatzeko. Izan ere, musikak ez du mugarik: gai da denongana iristeko, guztiok barneratzeko eta bateratzeko.

Musikaren gaitasun horrekin lotuta, iazko Musika Gelaren aurkezpenean esan nuen ideia bat berreskuratu nahi dut: har dezatela gipuzkoar eta euskal belaunaldi gazteek **bakerako musika**, musika elkarrekin entzun eta gozatzea bake-opari bat baita, eta musika elkarrekin joz bake-tresna bilakatzen da musika-tresna bakoitza.

Aurrera bakerako musika bateratzailea, eta aurrera Musika Gelak.

Xabier Ezeizabarrena Saenz

2024-10-16